



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 2023/02

SESIÓN Nº: 2023/02

EGUNA: 2023/02/23

DÍA: 23/02/2023

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE INICIO: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:25

HORA DE FINALIZACIÓN: 19:25

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa

LUGAR: Salón de Plenos de la casa consistorial

BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar Beristain

Aritz Larrañaga Unanue

Antxon Etxeberria Larrea

Nerea Arrizabalaga Badiola

Antxoka Elorza Altuna

Grupo municipal EH Bildu

Itziar Irizar Beristain

Aritz Larrañaga Unanue

Antxon Etxeberria Larrea

Nerea Arrizabalaga Badiola

Antxoka Elorza Altuna

Debarren Ahotsa udal taldea

Pedro Bengoetxea Loiola

Isidor Lamariano Arostegi

Ane Egidazu Elosua

Enrique Salgado Alcorta

Grupo municipal Debarren Ahotsa

Pedro Bengoetxea Loiola

Isidor Lamariano Arostegi

Ane Egidazu Elosua

Enrique Salgado Alcorta

EAJ-PNV udal taldea

Iñigo Cambroner Alkorta

Eneritz Gómez Lázaro

Miren Esnal Laskibar

Grupo municipal EAJ-PNV

Iñigo Cambroner Alkorta

Eneritz Gómez Lázaro

Miren Esnal Laskibar

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra

Secretario: Jose Luis Salaberri Iñarra

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

Gilen Garcia: Arratsaldeon eta ongi etorri denori.

1.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA.

Gilen Garcia: Zuen de hitza.

Pedro Bengoetxea: Nik badauzkat batzuk galdetzeko.

Gilen Garcia: Esadazu dituzun guztiak eta gero banan-banan erantzun dizut.

2022koak, 636a, "405/2022 Dekretua aldatzea eta baimena ematea Doniene Aundi baserriaren bereizketarako."

Eta 2023koak, 10a, "Eguneko Zentrorako langile baten ordezkapena."

14a, "J.M. Ostolaza kaleko 11-13 beheko lokalen itxiera."

23a, "Udaltzain baten kontratazioa."

32a, "Hondartza kalea 28 etxearen inguruan belarra kentzeko eta hormigoizko solera bat egiteko baimena ematea.", eta,

46a, "Energia kudeaketako eta klima aldaketako teknikaria kontratatzea Lanbideren administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programaren barruan."

Gilen Garcia: 636a, bere garaian landu genuen espediente horretan egon zen irizpide aldaketa, Jose Luisek emandako txostenean oinarrituta. Gogoratzen baduzue finka bati lotuta zegoela, metroak ematen zituela, bere garaian segregazioa egiteko baimena eman zitzaion, baina, ez zuten eskriturak eta borobildu, eta hasiera batean, orain eskatutako baimena ukatu egin zitzaion, eta guztia hori aintzat hartuta, irizpidea aldatu egin zen.

2023ko dekretuei buruz, 10a. "Eguneko Zentrorako langile baten ordezkapena." Gizarte Zerbitzuetako sailaren proposamena zela eta, ordezkari langile bat kontratatu zen eguneko zentroko langile baten lizentzia zela, haren lanpostua behin-behinean betetzeko,

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS.

Gilen Garcia: Buenas tardes y bienvenidos y bienvenidas.

1.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.

Gilen Garcia: Tenéis la palabra.

Pedro Bengoetxea: Yo tengo algunos para preguntar.

Gilen Garcia: Dime todos los que tienes. y luego te responderé uno a uno.

De 2022, el 636, "405/2022 Dekretua aldatzea eta baimena ematea Doniene Aundi baserriaren bereizketarako."

Y de 2023, el 10, "Eguneko Zentrorako langile baten ordezkapena."

El 14, "J.M. Ostolaza kaleko 11-13 beheko lokalen itxiera."

El 23, "Udaltzain baten kontratazioa."

El 32, "Hondartza kalea 28 etxearen inguruan belarra kentzeko eta hormigoizko solera bat egiteko baimena ematea.", y,

El 46, "Energia kudeaketako eta klima aldaketako teknikaria kontratatzea Lanbideren administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programaren barruan."

Gilen Garcia: El 636, en el expediente que se tramitó en su día hubo un cambio de criterio, en base al informe emitido por José Luis. Si recordáis, estaba unido a una finca, que contaba con los metros necesarios y que en su día se autorizó una segregación, pero que no se acabó con las escrituras, y en un principio se le denegó la autorización solicitada, por lo que se cambió el criterio.

En relación a los decretos de 2023, el 10 "Eguneko Zentrorako langile baten ordezkapena". Ante la propuesta del departamento de Servicios Sociales, se contrató a una persona para sustituir a una trabajadora del centro de día con una licencia,



eta lan poltsa hutsik zegoenez, Lanbideren bitartez bideratu zen izendapena.

14a, "J.M. Ostolaza kaleko 11-13 beheko lokalen itxiera" Aspalditik, aurreko agintalditik, hor bageneukan hainbat salaketa, Arartekoan eta abar, bertan bi gazte lokal zeudelako. Hainbat interbentzio egin dira, bilera bat ere egin genuen erabiltzen duten gazteekin. Hor bi lokal daude, eraikin desberdinak dira, baina lokalak lotura dute euren artean. Bat handiago da eta baldintzak beteko lituzke, bestea, txikiagoa da, metalezko atea du eta zarata-eta sekulako arazoak sortzen ditu. Bizilagunek Arartekorengana jo zuten eta hark esakera bidali zigun. Ahalegindu gara modu ahalik eta txukunean konpontzen, izan ere orain ondoko lokalean dauden gazteen kontra ez dago inolako kezarik bizilagunen partetik, baina eragiten die lokalaren jabea bera delako. Orduan, lokalak itxi egin behar ziren baldintzak betetzeko interbentzioak egiten zituen bitartean, eta horretarako hiru hilabeteko epea eman zaio.

23a, "Udaltzain baten kontratazioa", langile hori bazegoen, eta zeregin pilaketagatik, izendapena luzatu egin zaio.

32a, "Hondartza kalea 28 etxearen inguruan belarra kentzeko eta hormigoizko solera bat egiteko baimena ematea", obra baimen bat da, udal zerbitzu teknikoaren ezarritako baldintzatan ematen da baimena, eta aipatzen da baita ere, ordaindu beharreko zerga eta tasak. Txosten teknikoan oinarritako prozedura soil bat da.

Eta, azkena, 46a, "Energia kudeaketako eta klima aldaketako teknikaria kontratatzea

para la cobertura provisional de su puesto de trabajo, y como la bolsa de trabajo estaba vacía, se canalizó el nombramiento a través de Lanbide.

El 14, "J.M. Ostolaza kaleko 11-13 beheko lokalen itxiera" Hace tiempo, desde el anterior mandato, ya teníamos varias denuncias, en el Ararteko, etc., porque allí había dos locales de jóvenes. Se han realizado diferentes intervenciones, además se mantuvo una reunión con los jóvenes que lo utilizan. Ahí hay dos locales, que están edificios diferentes, pero que están unidos entre sí. Uno es más grande y cumpliría las condiciones, el otro es más pequeño, tiene una puerta metálica y genera importantes problemas de ruido, etc. Los vecinos se dirigieron al Ararteko quien nos envió una solicitud. Hemos intentado solucionarlo de la forma más ordenada posible, ya que no hay ninguna queja por parte de los vecinos contra los jóvenes que ahora están en el local contiguo, pero les afecta porque el propietario del local es el mismo. Entonces, los locales debían cerrarse mientras realizaba las intervenciones para cumplir los requisitos, para lo que se le ha concedido un plazo de tres meses.

El 23, "Udaltzain baten kontratazioa", se trata de una trabajadora que ya existía y se le ha prorrogado el nombramiento por acumulación de tareas.

El 32, "Hondartza kalea 28 etxearen inguruan belarra kentzeko eta hormigoizko solera bat egiteko baimena ematea", se trata de una licencia de obras concedida en las condiciones establecidas por los servicios técnicos municipales, y en el que se hace referencia a los impuestos y tasas a abonar. Se trata de un simple procedimiento basado en el informe técnico.

Y por último, el 46, Energía kudeaketako eta klima aldaketako teknikaria kontratatzea

Lanbideren administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programaren barruan”, bere egunean komentatu genuen diru-laguntza bat zegoela energia planarekin lotuta, pertsona gazteak behin ikasketa amaituta lehen lan-esperientzia herri administrazioan egin ahal izateko, eta neska gazte bat etorri da, Idoiarekin batera energiaren gaia lantzeko, eta, horren bitartez, energia plana garatzeko. Aurrekontuei begira, aztertu genuen ere energia kooperatibaren gaia lantzeko balioko zuela, baina, berez, programa bat da, karrera amaitu berri duten gazteek praktikaldi bat egin dezaten herri administrazio batean.

Zuek badituzue ekarpen edo zalantzaren bat?

Iñigo Cambronero: Ez

Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

2.- VIALINE ENPRESAK KUDEATUTAKO 2022KO TRAFIKO ISUNEI BURUZKO ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA.

Gilen Garcia: Ba ahal dago iradokizunik edo ekarpenik?

Ez dago ez ekarpenik edo ez iradokizunik.

Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

3.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, DEBEGESAREN ETA DEBAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKAL KOSTALDEKO UNESKO GEOPARKEAREN HELMUGETAKO TURISMO JASANGARRITASUNEN PLANA DEBAN GAUZATZEKO.

Gilen Garcia: Hemen azaltzen dena da Eusko Jaurlaritzak nola ekarri duen berera iazko planak. Plan batean bildu dira ekintza desberdinak eta hor gaude sartuta erakunde desberdinak: udalak, mankomunitateak, eta abar.

2022an egin genuen esakera, ia 900.000 eurokoa, merkatu zaharra eta gudarien plaza inguru hori birgaitzerako. Orain prestatzen ari

Lanbideren administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programaren barruan”. En su día ya comentamos la existencia de una subvención relacionada con el plan energético para que una vez finalizados sus estudios las personas jóvenes puedan realizar la primera experiencia laboral en una administración pública. Ha venido, una joven para trabajar el tema de la energía junto con Idoia y, con ella, desarrollar el plan energético. De cara a los presupuestos, también se analizó que podía servir para trabajar el tema de la cooperativa energética, pero en realidad es un programa para que los jóvenes que acaban de terminar su carrera puedan hacer un periodo de prácticas en una administración pública.,

¿Por vuestra parte, tenéis alguna aportación o duda?

Iñigo Cambronero: No

El Pleno queda enterado.

2.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA SOBRE MULTAS DE TRÁFICO GESTIONADAS POR LA EMPRESA VIALINE EN 2022.

Gilen Garcia: ¿Tenéis alguna pregunta o aportación?

No hay aportaciones ni sugerencias.

El Pleno queda enterado.

3.- APROBAR, SI PROCEDE, EL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE DEBEGESA Y EL AYUNTAMIENTO DE DEBA PARA LA EJECUCIÓN DEL PLAN DE SOSTENIBILIDAD TURÍSTICA EN DESTINO DEL GEOPARQUE UNESKO DE LA COSTA VASCA, EN EL MUNICIPIO DE DEBA.

Gilen Garcia: Lo que aquí se recoge es la forma en la que el Gobierno Vasco ha incorporado los planes del año pasado. Se han recogido las diferentes acciones en un único plan, y ahí estamos incluidas las diferentes instituciones: ayuntamientos, mancomunidades, etc.

En 2022 hicimos una solicitud, por un importe de casi 900.000 euros, para la rehabilitación del entorno de mercado antiguo y Gudarien plaza.



gara 2023ko deialdia, Hirigintza Batzordean komentatu genuena, eta bertan turismorekin lotutako ia proiektu guztiak sartu dira, garrantzitsuenak bai behintzat. Hitzarmena begiratzan baduzue, 8. orrialdean, iaz erabilitako txantilo berdintsua da.

Azkenean hemen egiten duguna da Udalak bere baitan prozedura bideratu beharrean, berez, Geoparkearen proiektua denez eta ez Debako Udalarena, Debegesarekin hitzarmena sinatzen dugu, kudeaketa aurrera eramateko, eragindako beste Udalek egin behar duten bezala, Zumaiko Udala barne, nahiz eta Debabarrenekoa ez izan, baina Geoparkean parte hartzen duenez, hitzarmenean sartuta dago.

Bertan jasotzen denez, proiektuak lau puntutan daude banatuta, baina berez, hiru liriateke: Santa Katalina inguruan biotopoaren erabilera publikoaren kudeaketari buruzko dokumentazioa; Historiaurreko Bailararena; Deba Lastur eta Itziar lotzen dituen PR-44, hau da Lasturko kanalaren ibilbidea. Eta azkenik, Historiaurreko Bailararen lotuta dagoen, eta seguruenik, azkenean, fitxa bakar batean jasoko dira, Ermittiako Plan Zuzentzailea, karsta, Ermittiako koba eta haren inguruari balioa ematearena.

Horiek dira Debarekin lotutako proiektuak, eta Debegesak kudea ditzan hitzarmena sinatu beharko genuke.

Ba al dago honen inguruan ekarpenik edo? Ez? Hortaz, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Debegesaren eta Debako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, Euskal Kostaldeko Unesco Geoparkearen Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Plana Deban gauzatzeko,

En estos momentos estamos preparando la convocatoria de 2023, que comentamos en la Comisión de Urbanismo, en la que se han incluido casi todos los proyectos relacionados con el turismo, al menos los más importantes. Si observáis el convenio, en la página 8, es prácticamente la misma plantilla que el año pasado.

Lo que finalmente hacemos es que en lugar de tramitar el procedimiento en el seno del Ayuntamiento, al ser un proyecto de Geoparque y no del Ayuntamiento de Deba, firmamos un convenio con Debegesa para llevar a cabo la gestión, tal y como deben hacer los otros Ayuntamientos afectados, incluido el Ayuntamiento de Zumaia, que aunque no sea de Debabarreba, al participar en el Geoparque, también está incluido en el convenio.

Tal y como se recoge en el convenio, los proyectos se distribuyen en cuatro puntos, pero de hecho serían tres: Documentación relativa a la gestión del uso público del biotopo en el entorno de Santa Catalina; dentro de Historiaurreko Bailara; El PR-44, el itinerario del canal de Lastur, que une Deba, Lastur e Itziar. Y por último, el Plan Director de Ermittia, el karst, la cueva de Ermittia y la puesta en valor de su entorno, que están vinculados a Historiaurreko Bailara, y probablemente, al final, se recogerán en una única ficha.

Estos son los proyectos relacionados con Deba y, para que sean gestionados desde Debegesa, deberíamos firmar el convenio.

¿Hay alguna aportación al respecto? ¿No? Entonces procedemos a la votación. ¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, aprueba el convenio de colaboración entre Debegesa y el Ayuntamiento de Deba para la ejecución del Plan de Sostenibilidad Turística en destino del Geoparque Unesco de la Costa Vasca, en el

alkateari berariaz ahalmena emanaz hura sinatzeko.

municipio de Deba, facultando expresamente al alcalde para la firma del mismo.

4.- M8- EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

4.- APROBAR, SI PROCEDE, LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DEL 8M-DÍA INTERNACIONAL DE LA MUJER

Gilen Garcia: Hau, onartzekotan, gaur onartuko genuke, baina dagokion egunean argitaratuko dugu.

Gilen Garcia: Esto, de ser aprobado, lo aprobaríamos hoy, pero lo publicaremos en el día que corresponda.

Itziar, zurea da hitza.

Itziar, tienes la palabra.

Itziar Irizar: Adierazpen instituzionala irakurtzen du:

Itziar Irizar: Procede a la lectura de la declaración institucional:

«M8 – EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Adierazpen Instituzionala

25 urte baino gehiago igaro dira, Beijineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak hartzerako orduan, gizonen eta emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa adostu zenetik. Nahiz eta aurrerapausoak eman diren, oraindik asko dago egiteko.

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoz, arrakala horiek gizartearen zati handi batentzat handitu egin direlako, emakumeentzat batez ere. Orain da liderrak izateko garaia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak sustatzeko garaia.

Ezin ahaztu arrazakeriaren kontrako justiziaren, soldata-berdintasunaren, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioaren, sexu-jazarpenaren ezabatzearen alde borrokan jarraitu behar dugula.

Martxoaren 8aren harira, egitarau oparoa osatu dugu Berdintasuneko batzordean. Aurten menopausia eta zoru pelbikoaren kontzientzia izango dira gai nagusiak. Bina hitzaldi-tailer antolatu ditugu, Deban eta Itziarren, gai hauetan sakontzeko asmoz.

Gainera, Kilimaterioa ikuskizuneko kideek klimaterio aroa umorez jantziko dute euren saioan, herriko Ipuin Kontalariak saio berezia eskainiko dute Ispiluen Gelan, Elbira dokumentala ikusgai izango da Kultur Elkartean, eta martxoaren 8ko elkarretaratzearen ondoren Kanean Kantuz taldeko kideek kantaldia eskainiko dute plazatik abiatuta.

Debako Udalbatzako kideok herritarrei dei egiten dizuegu jarduera hauetan parte har dezazuen!

Deban, 2023ko otsailaren 23an.»

Gilen Garcia: Ez badago ekarpenik, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Gilen Garcia: Si no hay aportaciones, procedemos a la votación. ¿Votos a favor?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du M8-Emakumearen Nazioarteko Egunean Adierazpen Instituzionala.

El Pleno, por unanimidad, aprueba la Declaración Institucional del 8M-Día Internacional de la Mujer.



5.- ESKARI ETA GALDERAK.

Gilen Garcia: Ba al dago eskari edo galderarik? Ez?

Nik aprobetxatu nahi dut aipamen bat egiteko. Astelehen iluntzean, erregistroan sartu zuten idatzi bat herritar batzuk Eusko Tren zerbitzuaren maiztasuna areagotzeko eta abarren harira egin duten sinadura bilketarekin lotuta. Debegesako lehendakaria naizenez, gutun bat igorri didate, Debabarreneko alkate guztiei helarazteko, eta gaur goizean helarazi diet.

Bere garaian komentatu genuen modu informalean, eta kalean ere oso zabaldua egon den gaia da, azkenean gure herrirako gaia garrantzitsua delako. Zumaia eta Eibar tartean herri handiena edo esanguratsuena garelako. Gutuna irakurriko dizuet jakinaren gainean egon zaitezten, eta Debegesako administrazio kontseiluan zer tratatuko den jakin dezazuen. Alkateek esan didate begi onez ikusten dutela gaia, baina ikusteke dago azkenean zein izango den gai honi ematen zaion forma. Debabarreneko alkateak gain hor egongo lirarteke ere Zumaiko eta Zestoako alkateak, Arroa Behea dagokienez eta abar.

Jarraian, gutuna irakurtzen du:

«*Debabarrenako alkate horiek:*

Urte bukaeran hasi genuen Eibar eta Zumaia arteko tren zerbitzua hobetzeko kanpaina. Bertan eskatzen dugu astean zehar Zumaia eta Eibar arteko zatiaren maiztasuna handitzea, hau da, ordubetea behin izan beharrean, ordu erdian behin izan dadila. Gure eskaera gutxienekotik hasi dugu, gure uste apalean egunerokoan ezinbestekoak diren ordu tarteak indartu beharko lirartekeelako behintzat, hau da, puntako orduak: goizez (7:00-9:00), eguerdian (13.00-16.00) eta iluntzean (19.00-21.00).

Jakingo duzuen moduan, Debabarrena eta Urola kostako hainbat herritan sinadura bilketa egin dugu: Zumaia, Arroa Behea (Zestoa), Deba, Mutriku, Mendaro, Alzola, Elgoibar eta Eibarren, hain zuzen ere. Guztira 5.000 sinadura baino gehiago jaso ditugu. Aipatu beharra dago sinatzera animatu den askok adierazi digula egun guztian zehar, baita asteburuetan ere, maiztasuna ugaritzeko eskatu beharko genukeela.

5.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Gilen Garcia: ¿Hay algún ruego o pregunta? ¿No?

Quiero aprovechar para mencionarnos un asunto. El lunes, al atardecer, se presentó en el registro un escrito relacionado con la recogida de firmas de algunos ciudadanos para aumentar la frecuencia del servicio de Eusko Tren, etc. Como presidente de Debegesa, me han enviado una carta para que la haga llegar a todos los alcaldes de Debarrena, y esta mañana les he remitido una copia.

En su momento lo comentamos de forma informal, y es un tema que también ha estado muy extendido en la calle, porque, al final, es un tema importante para nuestro pueblo, porque somos la localidad más grande o significativa entre Zumaia y Eibar. Os voy a leer la carta para vuestra información y para que conozcáis el tratamiento que se le va a dar en el consejo de administración de Debegesa. Los alcaldes me han dicho que ven el tema con buenos ojos, pero queda por ver cuál va a ser la forma que finalmente se le da a este tema. Además de los alcaldes y alcaldesas de Debabarrena, también estarían presentes los alcaldes Zumaia y de Zestoa, ya que también afecta a Arroa Behea

A continuación procede a la lectura de la carta.

Izan ere, gaur egun, Zumaia eta Eibar artean trena ordubete behin baino ez daukagu bi noranzkoetan. Eibar eta Bilbo artean zerbitzua ordu erdi dago (egunaren zati handi batean Elgoibartik hasita), baita Zumaia eta Donostia artean ere. Donostia - Bilbo ibilbide guztian, Altzola, Mendaro, Deba eta Arroa Behea bakarrik geratzen dira 30 minutuko zerbitzu hori gabe.

Trenaz gain, autobusak daude Deba eta Eibar artean (Mallabia-Ondarroa linea), baita Zumaia eta Deba artean ere (Ondarroa-Zumaia linea). Lehenengo kasuan, autobusak orduero daude, baina ia trenaren ordutegi bera dute. Bigarren linea, aldiz, bi eta hiru ordutik behin baino ez dago, eta trenaren ordutegiarekin bat dator.

Izugarria da trenez dabilen jende kopurua, are gehiago orain, txartelaren prezioa jaitsi denetik eta erregaien prezioaren igoera kontuan izanik. Gainera, ziur gaude maiztasuna ugartuz gero, askoz ere pertsona gehiagok erabiliko lukeela garraio hori. Izan ere, lan eta eskola ordutegiak askotan ez datoz bat trenaren ordutegiarekin, eta ordu bete zain egon beharrak kotxea hartzera bultzatzen du jendea.

Hori horrela izanik, uste dugu gure herria gobernatzen duten administrazioek ezinbestean jarri behar dituztela hainbeste kezkatzen gaituen ingurumena zaintzeko baliabideak, garraio publikoa indartzuz, eta herritarron ongizatea hobetuz, besteak beste. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunean adierazten den lez, lurraldean garraio publikoaren eta bizikletaren erabilera sustatzeko lanean, erakundearen helburua da pertsona guztientzako Gipuzkoa konektatu eta jasangarria diseinatzea. Eusko Jaurlaritzan ere, Gobernu Kontseiluak 2017ko ekainaren 13an onartu zuen Euskadiko Garapen Jasangarriaren 2030 Gida Plana. Plan horren misioa da Euskadiko gizartea kohesionatzen eta gizartea eta ekonomia garatzen laguntzeko garraio eredu jasangarria lortzea. Esan beharra dago, Garapen Jasangarriko 2030 Agendak mundu mailan adostutako hainbat helburu jasotzen dituela, esaterako, hiri eta komunitate jasangarriak, ekoizpen eta kontsumo arduratsuak, eta klimaren aldeko ekintzak.

Hori guztiagatik, gure eskaera xumea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari helaraziko diogu.

Ekimenaren arrakasta ikusita, Debabarrena bailarako alkateei eskatzen dizuegu, herritarron ordezkari bezala, gure eskaera babes dezazuela Eusko Jaurlaritzaren aurrean.

Aldez aurretik eskerrak emanez, agurtzen zaituztegu.

Debabarrena bailaran, 2023ko otsailaren 20an.»

Pentsatzen dut, ekimenaren berri izan genuenean bezala, oinarrizko eskaera dela, aspaldikoa. Bere garaian ere, komentatu zenuten lortu zela akordio bat, baina, gero, berriro ere, atzera bota zela. Uste dut gure udalerrak aspaldidanik duen erronka bat dela eta horren baitan txertatzen dela Eusko Trenekin jorratu eta jarraitu beharreko elkarlana, baina kontuan edukita gaur bertan Debegegan aurkeztu den plan estrategikoa, datorren agintaldi osoan garatuko dena, eta baita ere, Debabarrena Lehenetsuneko Jarduera Eremu izendatzeko Eusko Jaurlaritzan onartu behar den ponentzia, non mugikortasun gaia aipatzen den.

Pienso que, al igual que cuando nos enteramos de la iniciativa, es una demanda básica, que viene de hace tiempo. En su momento también comentasteis que se había alcanzado un acuerdo que, posteriormente, una vez más, fue rechazado. Creo que es un reto que tiene nuestro municipio desde hace tiempo, y que en él se enmarca el trabajo en común que hay que abordar y seguir con Eusko Tren, pero teniendo en cuenta el plan estratégico, que hoy mismo se ha presentado en Debegega, y que se desarrollará a lo largo de todo el próximo mandato, y la ponencia que se debe aprobar en el Gobierno Vasco para la declaración de Debabarrena como Zona de Actuación Preferente, en la que se hace referencia al tema



DEBAKO UDALA

Eskualdeko alkateek horren inguruko kontzientzia badute, eta nik esperantza dut horrek bultzada bat emango digula. Eta gurea bezalako udalerrri txiki batek, eskualde gisa eta lurralde orekaren izenean joatea Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat herri lotzen duen horrek behingoz lortzea, eta hemen aipatzen diren oinarrizko puntuak betetzea.

Horrela, jakinaren gainean zaudete, eta hurrengo pausoen berri izan ahala horren berri ere izango duzue.

Horrenbestez, amaitutzat emango dugu Osoko Bilkura. Mila esker.

Beste aztergairik ez dagoenez, 19:40ean amaitzen da Osoko Bilkura.

de la movilidad.

Los alcaldes y alcaldesas de la comarca tienen conciencia de ello, y yo tengo la esperanza de que esto nos dé un impulso, y que, para un municipio pequeño como el nuestro, se vaya como comarca y en nombre del equilibrio territorial, se consiga, de una vez por todas, la unión de varios pueblos de Bizkaia y Gipuzkoa, y se cumplan los puntos básicos que aquí se mencionan.

Así, estáis enterados, y a medida que vayamos conociendo los siguientes pasos, os daremos información al respecto.

No, pues con esto, daremos por finalizado el Pleno.

Sin más temas que tratar, a las 19:40 horas, finaliza el Pleno.

Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria



Gilen Garcia Boyra
Alkatea

